

## AITONAREN ETXEA

Xali

Amak joateko esan dit. Badela garaia, urtebete dela ez naizela han agertzen. Niri egundoko pereza ematen dit, ordea. Aitona beti izan da hitz gutxikoa, begirada zuzeneko, geldoa.. ez dakit zahar guztiak horrelakoak diren edo gure aitona bakarrik. Beno, amona ez, amona oso bestelakoa zen: Bizia, alaia, laurogeita bost urterekin ere egunero ohetik zazpietan jaikitzen zen horietakoa.. eta bai, amonen topikoak berresten zituen: Denok genituen maite bere kroketak, arrain zopa, arroz esnea.. hura hil egin zen eta hutsune handia utzi zigun denoi, bereziki aitonari.

Orduz geroztik, gurasoen kezka aitona izan da. Baserria utzi eta Zahar Egoitzara joatearen onurak mila modutan azaldu dizkioten arren, ez du amore ematen. Bera bertan jaio eta bertan hilko omen da, laster, gainera. A zer panorama depresiboa. “Ez iezaiozu utzi aitzurra hartzen, Lur”, esaten dit aitak. “Lisa iezaiozu igandeetako alkandora eta lagundu mezatarara, ez diezaiola herriko jendeak penarekin begiratu”, esaten dit amak.

- Beno, aitona, kartetan egingo dugu edo zer?- Bota diot azkenean, sutondoari begira ordu erdia pasa ondoren.
- Jolas ezan hik, “solitariyuan” edo, hire amonak egiten zinan bezala. Nik ez zeukanat gogorik.

Eta hortxe jarraitu du, edozein zaharki dendatan preziatua izango zen bere besaulkian, txapela buruan, bi pilotari esku horiek sabelean eta lehen urdinak ziren begi grisak suaren dantzan paratuta dituela. Zertan pentsatuko ote duen jakin nahiko nuke, baina izango dugu astirik galdeketarako. Ohianaren gomendioa jarraituz, kalekume orok bizi beharko lukeen esperientzia espiritualaren bila abiatu naiz. Mendiko botak, berokia eta bufanda jantzi eta ate ondora ailegatu naizenerako aitonaren harridura aurpegia.

- Izarrak ikustera noa, aitona. – Baina harridura aurpegiarekin begiratzen jarraitu dit. – Jope, bai ba: espazio handiaren aurrean txiki sentitzearena, basoaren ilunak duen misterioa, hontzaren oihua..
- Katarro galanta harrapatuko dun, bai horixe! – Eta suari so geratu da berriro.

Baserritik aldentzen naizen heinean, gero eta soinu gehiago entzuten ditut, zein baino zein beldurgarriagoa; “haizea, besterik ez” esaten diot neure buruari, baina ez nuen sekula imajinatuko haizea horrelako hotsak eragiteko gai denik. Beldurra garaitu nahian, pixka bat gehiago urrundu eta belarretan etzan naiz, zerua kontenplatzeko. Gauza mundutar guztiak ahazten eta puntutxo zuri ugariko zero beltza miresten saiatu naizen arren, ipurdia hozten hasi zait eta “Obabakoak”-eko muskerrekin gogoratu naiz.. pelikula hori txikia nintzela ikusi nuen eta beti izan dut zalantza: Muskerrak jendearen belarritik sartu eta garuna jaten dute bai ala ez? Atxagari zor diot trauma hori, eta neurri handi batean nire kalekume izaerari. Kalekume hau, hortaz, bueltan da baserrira, zibilizaziotik eta zementutik aparte bost minutu ere iraun gabe.

Barre algarek esnatu naute. Zein ondo egin dudan lo. Baratzaz eta beste zenbait gauzez ezer gutxi esan nezake, baina baserria estaltzen duten egur lodiek ematen dute nolabaiteko lasaitasun bat, nolabaiteko bakea. Sukaldetik datoz aitonaren barreak, eta bertara noa. Dokumentu bat eskuetan, ilusioz begiratzen dit.

- Begira, Lur! Inspektore bat etorri dun, baserria zaharberrituko ditene! Eusko Jaurlaritzak ondare kulturala dela esan din! – Dokumentua hartu dut segidan, eta hara sorpresa: Abiadura Handiko Trena (AHT) Igartubeiti baserria dagoen zelaitik pasako da. Eta aitonak, diru truk, bere baimena sinatu du. Momentuan bertan jabetu naiz aitonak ez dakiela irakurtzen.
- Zorionak, aitona! – ez dut besterik esaten jakin, eta besarkatu egin dut, nire disgustu aurpegiaz konturatu ez dadin.

Egun osoan zehar aitona saihesten ibili naiz, ez dut imajinatu ere egin nahi nola erreakzionatuko duen, eta gainera, pozez zorutzen dago.. baina gualdean nire laguntza behar izan du. Ukuiluan “beeeeh..!” sakon bat egin du ahuntzak, lasto artean etzanda. Aitona haren ondoan dago belauniko, samur-samur laztantzen. “Antxumetxoa zeukanan”, esan dit ilusioz, jaiotzera doana bere umea izango balitz bezala. Egundoko zirrarez hurbildu natzaio, eta klik egitera jo dut unetxo batez, “Me gusta” eta “Eder se siente entusiasmada” esateko, baina gaurkoa zuzeneko da eta ez *Facebook*-eko bideo bat. Antxumearen hankatxoak, ipurdia, gorputz osoa.. eta azkenik burutxoa! Ikusi dugu jaiotzen, odolez blai. Amatzok goitik behera miazkatu du, ia-ia odol arrastoak desagertu arte, eta antxumeak zutik jarri eta errapeetara jo du berehala. Zur eta lur geratu naiz, bizitzaren ikuskizunaren aurrean hunkituta, hor pasako nituzkeen orduak eta orduak.

Gaua desberdina izan da. Antxume jaioberriaz pentsatu dut. Zer etorkizun izango du? Nork zainduko du? Hortxe agertu zaizkit bi hautuak: alde batetik, abiada, zarata, zementua.. heriotza; eta, bestetik, antxumearen kizkur zuriak, oreinak, arbolak, hontzak, eta Eusebia eta bere piperrak, edo Antton eta bere gazta, eta, noski, aitona. Zerbait egin beharra daukat.

Hurrengo gauerako, dezente tematu ondoren, konbentzitu ditut Maria, Eusebia, Pepita, Luisa eta Antton, akerraren garezurrarekin etorri dena. Karmenek, berriz, musika aparatua ekarri du. Ada Colau besterik ez zaigu falta izan, sorginetan sorginena eta askoren amets gaiztoa, berebiziko akelarrea muntatzeko. Goizeko hiruretan Ezkioko kaleetatik, “Baga, biga higa, laga boga sega, zaizoi bele..” Mikel Laboaren musikaz armatuta inguratu dugu AHT-ko inspektorearen ostatua. Lutoz jantzitako atsoek, akerraren garezurrak, irrintziek, dantzek eta musikak katarsia eragin digute eta estasian sartu gara, horra Oihaneri Donostiara bueltatzean kontatuko diodan esperientzia espirituala. Bizilagun asko ez ezik, inspektorea bera ere aterarazi dugu kalera, eta erabat asaldatuta pijaman alde egin du bere kotxe dotorean. Ea argi gelditzen zaion basatiok basati nahi dugula jarraitu eta ez dugula haien “garapena”-ren beharrik.

Espero bezala, sortutako iskanbilaren ondoren aitona denaz enteratu da. Hala galdetu dit biharamunean:

- Zergatik egin duzu hori, Lur?

Nik, orduan, Arestiren poema errezitatu diot:

- *Nire aitonaren etxea defendituko dut.*  
*Otsoen kontra, sikatearen kontra,*  
*lukurreriaren kontra, defendituko dut*  
*nire aitonaren etxea. (..)*

Eta aitonaren begiek diz-diz egin dute.